

ZAHARTZAROKO ABUSU ETA TRATU TXARRAREN KONTZIENTZIA HARTZEKO MUNDUKO EGUNAREN MANIFESTUA

EKAINAK 15

“Tratu onari atea ireki. Zuk duzu giltza!”

Gaur, 2026ko ekainaren 15ean, berriro elkartu gara tratu onen garrantzia ikusarazteko eta, gizarte gisa, adineko pertsonekin zaintza- eta errespetu-espazioak eta -harremanak eraikitzen jarraitzeko premia larria aitortzeko.

Egun honek gelditzera eta tratu onetan oinarritutako harremanen eraikuntzan gutako bakoitzak zein paper jokatzeko duen birpentsatzera gonbidatzen gaitu. Gure bizitzan eta gure gizartean dauden adineko pertsonekin nola bizi garen, nola begiratzen diegun, nola zaintzen ditugun eta nola tratatzen ditugun hausnartzera gonbidatzen gaitu.

Zahartze duinarekiko konpromisoa ez da zahartzarokoa iristen denean hasten. Gaur hasi behar da, eguneroko keinu bakoitzean, pertsonari euren bizitza osoan zehar laguntzeko moduan. Zahartze duinaz hitz egitea gure etorkizunaz hitz egitea da, pertsona guztiok nagusitzen garela eta guztiok duintasunez, bizi-kalitatez, eskubidez, errespetuz eta konpainiaz zahartu nahi dugulako.

Hemen gaude gaur oinarritzeko ideia bat gogoratzeko: tratu ona ez da kasualitatez gertatzen. Tratu ona aukeratu eta egunero eraikitzen da. Tratu onari atea irekitzeak erakundeen, profesionalen, familien eta komunitatearen konpromisoa eskatzen du. Baina konpromiso pertsonala ere eskatzen du, guztiok garela irtenbidearen parte.

Giltza gure hitzetan, gure begiradetan eta gure eguneroko keinuetan dago.

Giltza entzutean, errespetatzean, ez infantilizatzean, ez ezikusiarena egitean eta beste aldera ez begiratzean dago.

Giltza edozein tratu txar mota gaitzestean dago: psikologikoa, ekonomikoa, utzikeria, abandonua, inposatutako bakardadea eta mespretxu normalizatua.

Gaur, honako hau bermatuko duen gizarte bat aldarrikatzen dugu:

Adinekoak baloratu eta aitortuko dituen.

Haien autonomia baliogabetu gabe laguntzak eta zaintzak bermatuko dituen.

Parte-hartze sozial, komunitario eta kulturalerako espazioetan sartuko dituen.

Euren beharrak, nahiak eta erabakiak kontuan hartuko dituen.

Sarritan ate itxiten eta isiltasun deserosoen atzean ezkutatuta egoten den errealitatea salatzen dugu. Adinekoen aurkako tratu txarrak ez direlako kontu pribatua: injustizia soziala eta erantzukizun kolektiboa dira.

Adinekoen tratu ona defendatzea giza duintasuna defendatzea da. Oraina zaintzea eta etorkizuna babestea da. Izan ere, bizitzak ahalbidetzen badigu, pertsona guztiok helduko baikara zahartzera.

Gaur, elkarrekin, ate hori irekitzea aukeratzen dugu.

Eskubideak aukeratzen ditugu.

Errespetua aukeratzen dugu.

Duintasuna aukeratzen dugu.

Tratu ona aukeratzen dugu.

Ireki atea tratu onari.

Zuk daukazu giltza.

MANIFIESTO PARA EL DÍA MUNDIAL DE TOMA DE CONCIENCIA DEL ABUSO Y EL MALTRATO EN LA VEJEZ

15 DE JUNIO

“Abre la puerta al buen trato: tú tienes la llave”

Hoy, 15 de junio de 2026, volvemos a encontrarnos para visibilizar la importancia de los buenos tratos y para reconocer, como sociedad, la necesidad urgente de seguir construyendo espacios y relaciones de cuidado y respeto con las personas mayores.

Este día nos invita a parar y repensar qué papel jugamos cada una y cada uno de nosotros en la construcción de relaciones basadas en el buen trato. Nos invita a reflexionar sobre cómo convivimos, cómo miramos, cómo cuidamos, cómo tratamos a las personas mayores que están en nuestras vidas y en nuestra sociedad.

El compromiso con un envejecimiento digno no empieza cuando llega la vejez. Empieza hoy, en cada gesto cotidiano, en la manera en la que acompañamos a las personas a lo largo de toda su vida. Hablar de envejecimiento digno es hablar de nuestro propio futuro, porque todas las personas nos hacemos mayores y todas deseamos envejecer con dignidad, calidad de vida, derechos, respeto y compañía.

Hoy estamos aquí para recordar una idea fundamental: el buen trato no ocurre por casualidad. El buen trato se elige y se construye cada día. Abrir la puerta al buen trato implica compromiso institucional, profesional, familiar y comunitario. Pero también implica un compromiso personal, porque todas y todos formamos parte de la solución.

La llave está en nuestras palabras, en nuestras miradas y en nuestros gestos cotidianos.

La llave está en escuchar, en respetar, en no infantilizar, en no ignorar y en no mirar hacia otro lado.

La llave está en rechazar cualquier forma de maltrato: el psicológico, el económico, la negligencia, el abandono, la soledad impuesta y el desprecio normalizado.

Hoy reivindicamos una sociedad que valore y reconozca a las personas mayores;

que garantice apoyos y cuidados sin anular su autonomía;

que las incluya en los espacios de participación social, comunitaria y

cultural;
y que tenga en cuenta sus necesidades, deseos y decisiones.

Denunciamos una realidad que con frecuencia permanece oculta tras paredes cerradas y silencios incómodos. Porque el maltrato a las personas mayores no es un asunto privado: es una injusticia social y una responsabilidad colectiva.

Defender el buen trato a las personas mayores es defender la dignidad humana.

Es cuidar el presente y proteger el futuro.

Porque, si la vida nos lo permite, todas las personas llegaremos a envejecer.

Hoy, juntas y juntos, elegimos abrir esa puerta.

Elegimos derechos.

Elegimos respeto.

Elegimos dignidad.

Elegimos buen trato.

Abre la puerta al buen trato.

Tú tienes la llave.